



TOLOSAKO  
UDALA

## GOBERNU BATZARRA

2019.12.10

**Alkatea:**  
**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**  
**Nerea Letamendia Beloso**  
**Begoña Tolosa Mendia**  
**Patxi Amantegi Zubiria**  
**Xabier Balerdi Tolosa**  
**Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria**

**Idazkaria:**  
**Begoña Garmendia Vazquez**

**Jarduneko kontuhartzailea:**  
**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi abenduaren 10ean, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2019ko abenduaren 3ko akta onartzea.
2. Onartzea Tolosako Udala, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, Garraio publikoko zerbitzuan, tarifen integrazioko sisteman sartzeko eskaera eta, hala badagokio, prozedurari hasiera ematea.
3. Dekretu hauen berri ematea: 2019ko azaroaren 22tik abenduaren 5era (dk2019/1957-2019/2.043)

### **1. 2019KO ABENDUAREN 3KO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko abenduaren 3an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

### **2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN, GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUAN, TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMAN SARTZEKO ESKAERA ETA, HALA BADAGOKIO, PROZEDURARI HASIERA EMATEA.**

### **AURREKARIAK**

Tolosako Udala hiri barneko garraio publikoko zerbitzuaren pleguak berrikusten ari da.



TOLOSAKO  
UDALA

2019ko azaroaren 26an, Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak txostena egin zuen gai honi buruz, adieraziz pleguen berrikusketa tarteko, momentu egokia dela Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren tarifen integrazio sisteman sartzeko. Tarifen integrazio sisteman sartzeari buruzko xehetasunak txostenean adierazten dira. Txostenak hauxe dio:

## **“1. AURREKARIAK**

- Tolosako Udala hiri barneko garraio publikoko zerbitzua berrikusten ari da. Zerbitzu berriaren pleguak lantzen ari dira eta, beraz, momentu egokia da Garraio Agintaritzan integratzeko.

- Gaur egun gero eta gehiago dira Tolosako biztanleak Mugi txartela erabiltzen dutenak eta garraio publikoaren zerbitzu desberdinak erabiltzen dituztenak. Erabilera hau oraindik gehiago areagotu da, RENFE ere plataformara atxikitu denetik.

Gaur egun, gurea bezalako zerbitzua duten Gipuzkoako herri gehienak Agintaritzaren bazkideak dira:

DFG-GFA, GV-EJ, Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun.

Tarifen integrazioarekin lortu nahi ziren helburuak hauexek dira:

- Gipuzkoako garraio publiko kolektiboa erabiltzaileentzat sistema erakargarriagoa eta erabiltzeko errazagoa izan dadin, txartel bakarra erabiliz.
- Erraz ulertzeko moduko tarifen sistema bat ezartzea, erabiltzaileek onartutako printzipioetan oinarritua betiere eta garraio publiko kolektiboko sistema sare integratu baten moduan ulertu eta ikustea, jasangarriagoa eta ibilgailu pribatuarekiko ez hain mendekoa litzatekeen mugikortasuna sustatzera bideratua.
- Tarifa progresiboagoak izatea. Gero eta garraio publikoa gehiago erabili, orduan eta merkeagoa.

## **2. TXOSTENA**

### **2.1 Tarifak**

Gaur egun, hiribusean bi tarifa daude:

- Noizbehinkako txartela: 0,70 €.
- Erabiltzaile txartela: 0,30 €.

Tarifa horiek ez dira progresiboak, ez daude bidaia-kopuruaren menpe.



Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan (GGLA) sartzeko, Tolosako autobus bidezko herri-garraiorako zerbitzuak eduki beharreko tarifak hauek dira gaur egun. Baliteke 2020. urterako tarifa hauek eguneratzea:

- Txartel arrunta: 1,30 €.
- Erabiltzaile-txartela: aldatuko da hilabeteko bidaia-kopuruaren arabera. Honako tarte hauek finkatuko dira:
  - Hilean 1 eta 20 bidaia bitartean: 0,69 € oro har, honako kolektibo hauek izan ezik: familia ugariak eta gazteak (0,55 €) eta adinekoak, desgaitasunen bat dutenek eta gizarte-laguntzak dituzten pertsonak (0,33 €).
  - Hilean 21 eta 50 bidaia bitartean: 0,56 € oro har, honako kolektibo hauek izan ezik: familia ugariak eta gazteak (0,45 €) eta adinekoak, desgaitasunen bat dutenek eta gizarte-laguntzak dituzten pertsonak (0,27 €).
  - Hilean >50 bidaia: 0,13 € oro har, honako kolektibo hauek izan ezik: familia ugariak (0,07 €) eta gazteak (0,00 €) eta adinekoak, desgaitasunen bat dutenek eta gizarte-laguntzak dituzten pertsonak (0,06 €).
  - 6 urte arteko haurrek: 0,00 €.

Aukera honen abantaila litzateke autobus-aldaketak edo transbordoak egiten dituzten erabiltzaileek tarifa-hobariak edukiko litzaketela. Alegia, autobus-aldaketa intramodala doakoa izango litzateke (herriko autobusa eta herriarteko autobusen beste kontzesio batzuk) eta autobus-aldaketa intermodalak deskontu bat aplikatuko lioke tarifa arruntari, hortaz, bidaiaren prezioa 0,17 € izango litzateke.

## 2.2 Aurreikuspenak

Egun, Tolosako urbanoaren tarifa medioa **0.389 €** litzateke (diru-sarreretatik txartelen fidantzak kenduta)

GGLAko tarifa bera antzeko tamaina duten herrien zerbitzua ikusiz, pentsatzen dugu bidaiari kopuru berarekin ere tarifa medioa **0.46 €** izango litzaketela.

Beraz, batez beste, MUGI txartelaren erabilerak zerbitzuaren txartelaren kostua zertxobait igoko duela aurreikusten bada ere, 0,071 € bidaiako, MUGI txartelak izango dituen abantailak igoera hori erraz konpentsatuko duela aurreikusten dugu.

Argi azaldu beharko zaie erabiltzaileei Mugi txartelik gabe eta oso noizbehinka autobusa erabiltzen dutenak aterako direla kaltetuen. Beste aldean, garraio publikoa asko eta modu desberdinetan konbinatuz erabiltzen dutenek erosotasun eta aurrezpen esanguratsua nabaritu dute.

Bidaiarien kopurua estimatzea zailagoa da, baina zerbitzu berbera izanda ere, % 4 edo % 5 bat igo daiteke (beste herri/hiritan) izandako bilakaera ikusita.

Bestalde, ondorioz, urteko diru-sarrerak 56.000 €-tik gora izatea aurreikusten da.



### 2.3 Udalarentzat beste ondorio batzuk

*Erabiltzaileentzako abantailez gain, GGLAn integratzeak baditu beste abantaila aipagarri batzuk, horien artean, honako hauek:*

- *Diru-sarrerak GGLAk berak ingresatu eta kudeatuko ditu, Udalaren esku utzi aurretik.*
- *GGLAk Udalari bidaliko dizkio zerbitzuaren inguruko txosten teknikoak, horien artean, egindako km eta ibilbideenak, saldutako tikieta eta abarrenak. Horrek asko erraztuko du zerbitzuaren kontrola.*
- *Bestalde, errazago koordinatu ahal izango da gure zerbitzua beste garraio publikoekin, intermodalitatea sustatuz.*

*Kontuan hartu behar da, era berean, Udalak GGLAn parte hartzeagatik kuota bat ordaindu beharko duela. Beraiekin izandako azken bileran urteko 4.000 € inguru izango dela aurreratu ziguten, baina kopuru hori, beste baldintza batzuk bezala, integrazio prozesuan zehaztuko da.*

### 3. Proposamena

*Hori dena ikusirik, honako hau proposatzen da:*

**Lehena:** *Udaleko Gobernu Batzarrak eskaera egitea, ATTGn integratzeko.*

**Bigarrena:** *Agintaritzako Asanblada Nagusiak eskaera egoki ikusten badu, **Agintaritzan sartzeko prozedura hastea***

### ZUZENBIDE OINARRIAK

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan (GGLA) sartzeko prozedura estatutuetan zehazten da (GAO 28 zk., 2011/11/02), hain zuzen ere bere 37. artikuluan. Labur esanda, jarraitu beharreko pausoak honako hauek dira:

1. GGLAn sartzeko erakunde interesdunaren **aldez aurreko eskaera**.
2. GGLAk eskaera egokia den edo ez erabakiko du. Eskaera onartuz gero, **sartzeko baldintzak jarriko ditu** eta partzuergoko kide diren ordezkarien **boto-kopuru berria zehaztuko du**.
3. Onartzeko eskaera jakinarazita, Tolosako Udalak ezarritako **baldintzak bete, GGLAren Estatutuak onartu, ordezkariak izendatu** eta **GGLAri zein ondasun emango dizkion zehaztu** beharko du.
4. GGLAk onartuko du beste kide bat sartzea, boto-kopurua berriz ere zehaztu eta estatutuen 1.1 eta 13. artikulua aldatuko dira.
5. Partzuergoko kide diren guztiei jakinaraziko zaie akordioa eta estatutu aldaketa EHAA eta GAO n argitaratuko da.



Bestalde, entitate lokalek partzuergoak era ditzakete beste administrazio publiko batzuekin, guztien intereseko helburuetarako, bai halaber interes publikoko helburuak lortu nahi dituzten irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuekin, helburuok administrazio publikoarenetik bat badatoz (Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, apirilaren 2koa; 57.artikulua. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arautzen duena; 118. artikulua eta hurrengoak. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 101. eta 104. eta hurrengo artikulua. 6/2007 Foru Araua, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak Arautzen dituena; 18. eta hurrengo artikulua).

Gauzak horrela, aintzat hartuta Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 172. eta 175. artikulua, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**Lehena.-** Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari **aldez aurreko eskaera egitea**, Tolosako Udala Partzuergo horretan sartzeko, haren estatutuen 37. artikuluan ezarritakoaren arabera; ondorioz, erakunde horrek esan dezala eskaera egokia den ala ez eta, egokia bada, eman diezaiola Tolosako Udalari bete beharreko baldintzen berri.

**Bigarrenkoa.-** Erabaki honen berri ematea Lurraldeko Batzorde Informatiboari.

### **3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO AZAROAREN 22TIK ABENDUAREN 5ERA (DK2019/1957-2019/2.043)**

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2019ko azaroaren 22tik abenduaren 5era bitartean (DK 2019/1957-2019/2,043) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1957	2019	22/11/2019	KONTUHARTZAILETZA	BELENA PATIOAREN 2019KO 2. SEIHILABETEAREN ERROLDA ONARTZEA.
1958	2019	22/11/2019	HIRIGINTZA	OBRA BAIMENA EMATEA M.J.IRAOLA



				ETORBDIEA 8 BEHEA
1959	2019	22/11/2019	PERTSONALA	J.A.S. (Udate)
1960	2019	22/11/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEARI DIRU LAGUNTZA IZENDUNA EMATEA.
1961	2019	22/11/2019	HIRIGINTZA	LEITZA KALEA 1 BEHEKO, B LOKALEAN SARRERA ZUZENEAN KALETIK ETXEBIZITZA BATI LOTUTAKO TRASTELEKUARI EGITEKO OBRA BAIMENA
1962	2019	22/11/2019	PERTSONALA	B.G.V. (HERNANIKO IDAZKRI LANPOSTURAKO EPAIMAHAIAN)
1963	2019	22/11/2019	PERTSONALA	A.R.U.(HERNANIKO IDAZKRI LANPOSTURAKO EPAIMAHAIAN)
1964	2019	22/11/2019	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 32(2) ERABILERA LAGATZEA ETA KOTNRATUA ONARTZEA
1965	2019	25/11/2019	FESTAK	J.P.B.-RI 2019KO AURREKONTUETAKO KARGURA, ALLIRIKO JAIK ANTOLATZEKO, 500 EUROKO DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEA.
1966	2019	25/11/2019	HIRIGINTZA	VIVEROS PAGOLAREN AURREKONTUA ONARTZEA. ELOSEGI PARKEKO ZUHAITZEN ARRISKU EBALUAKETA
1967	2019	25/11/2019	IDAZKARITZA	TRIANGULO PLAZAKO 37 (-1) GARAJEAREN ESKUALDATZEA. INMACULADA ITURRIOZ SANZ.
1968	2019	25/11/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	GIZARTE ZERBITZUEN ETA OSASUNAREN ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ EMATEKO 2019KO DEIALDIA ONARTU.
1969	2019	25/11/2019	IDAZKARITZA	ETXEBIZITZA TASATUA ESKURATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DITUELA JAKINARAZTEA
1970	2019	25/11/2019	PERTSONALA	URRIKO GIZARTE SEGURANTZAREN KOSTUA ONARTZEA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1971	2019	26/11/2019	IDAZKARITZA	ONARTZEA ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIDURARAKO ESPARRU AKORDIOAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEARI ATXIKITZEA, GIPIZKOAKO FORU KONTRATAZIOEN



				ZENTRALAK IREKI DUENA.
1972	2019	26/11/2019	EUSKERA	GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEARI 2018-2019 IKASTURTEKO HITZARMENAREN 2. ZATIA ORDAINTZEA
1973	2019	26/11/2019	EUSKERA	HERRIKIDE IKASTETXEARI 2018KO DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA.
1974	2019	26/11/2019	HIRIGINTZA	M.J.IRAOLA ETORBIDEA 10EAN SOINUENGATIK KEXARENGATIK DISZIPLINA ESPEDIENTEA
1975	2019	26/11/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	ESP.: 2664 - ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAN ALTA.
1976	2019	26/11/2019	HIRIGINTZA	MARTIN JOSE IRAOLA 7ESTALKI ETA FATXADA OBRARI AMAIERA EMATEA
1977	2019	26/11/2019	GAZTEDIA	LEHIA BIDEZKO GAZTERIAKO 2019KO DIRULAGUNTZEN BANAKETA ONARTZEA
1978	2019	26/11/2019	IDAZKARITZA	2019ERRE0019 ESPEDIENTEAN EZEZKOA ESATEA
1979	2019	26/11/2019	HIRIGINTZA	IURRAMENDI BARATZA PARKEKO B74 PARTZELAREN ERABILERA BAIMENA BERTAN BEHERA UZTEA
1980	2019	26/11/2019	HIRIGINTZA	IURRAMENDI BARATZA PARKEKO B74 ERABILERA BAIMENA EMATEA
1981	2019	26/11/2019	PERTSONALA	J.I.N. (AZAROAK 4TIK 18RA %30EKO LANALDIA GEHITU)
1982	2019	26/11/2019	HIRIGINTZA	MARTIN JOSE IRAOLA 10-4B ETXEBIZITZAN OBRA EGITEKO LIZENTZIA EMATEA BARNE-BANAKETAREKIN
1983	2019	26/11/2019	KULTURA	O.A.H. MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAREN BAJA ONARPENA
1984	2019	26/11/2019	HIRIGINTZA	IURRAMENDI BARATZA PARKEKO B05 PARTZELAREN ERABILERA BAIMENA BERTAN BEHERA UZTEA
1985	2019	26/11/2019	HIRIGINTZA	IURRAMENDI BARATZA PARKEKO B05 PARTZELAREN ERABILERA BAIMENA EMATEA
1986	2019	26/11/2019	EUSKERA	NAFARROA OINEZ-I DIRULAGUNTZA EMATEA.

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1987	2019	26/11/2019	HIRIGINTZA	ERREMENTARI KALEA 5-1. SOLAIRUKO "KARMENTXU II" PENTSIOAN ERREFORMA PARTZIALA EGITEKO OBRA BAIMENA
1988	2019	26/11/2019	HIRIGINTZA	IURRAMENDI BARATZA PARKEKO T02



				PARTZELAREN ERABILERA BAIMENA BERTAN BEHER UZTEA
1989	2019	26/11/2019	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO 7-6 ESK. ETXEBIZITZA BAT EGITEKO OBRA ETA ERABILERA ALDATZEKO LIZENTZIA EMATEA
1990	2019	27/11/2019	HIRIGINTZA	SAN ESTABANEN 2 LUR SAIL TXUKUNTZEKO ERREKERIMENDUA
1991	2019	27/11/2019	IDAZKARITZA	2019ERRE0007 ESPEDIENTEAREN HASIERA
1992	2019	27/11/2019	KULTURA	UDAL MUSIKA ESKOLAKO S.M.A. IKASLEAREN BAJA ESKAERA ONARTZEA
1993	2019	27/11/2019	IDAZKARITZA	GUREAK ETA ATZEGIK SINATUTAKO HITZARMENAREN III ERASKINA ALDATZEA
1994	2019	27/11/2019	KULTURA	UDAL MUSIKA ESKOLAKO IKASLE N.V.N.REN BAJA ESKAERA ONARTZEA
1995	2019	27/11/2019	IDAZKARITZA	PLAZA ZAHARREKO 7. APARKALEKUAREN ERABILERA ESKUBIDEA ESKUALDATZEKO BAIMENA EMATEA
1996	2019	27/11/2019	HIRIGINTZA	URKIZUKO ABELTZAINZARAKO DEPOSITUKO OBRAREN SEGURTAZUN PLANA ONARTZEA
1997	2019	27/11/2019	PERTSONALA	G.L.I. (IKASTAROA)
1998	2019	28/11/2019	AZOKAK	O. T.-RI BAIMENA EMATEA POSTUA JARTZEKO EH PLAZAN
1999	2019	28/11/2019	IDAZKARITZA	2019ERRE0017 ESPEDIENTEAREN HASIERA
2000	2019	28/11/2019	IDAZKARITZA	INPERNU 1EKO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA
2001	2019	28/11/2019	OBRAK	SAN FRANTZISKO 39-41EKO URBANIZAZIO PROIEKTUA ONARTZEA.
2002	2019	28/11/2019	HIRIGINTZA	SAMANIEGO HERRI ESKOLAKO BULEGO ERAIKINAREN EGITURA SENDOTZEKO PROIEKTUA ONARPENA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2003	2019	28/11/2019	IDAZKARITZA	ALKATEAK ABOKATZEA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN ORDEZKATUTAKO ESKUMENAK, TOLOSAKO ALONDEGIA PLAZAN JARRI DEN





TOLOSAKO  
UDALA

				EGITURA TENKATUA HORNITZEKO, INSTALATZEKO ETA MUNTATZEKO, PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA MUNTAIAREN EGIKARITZEAREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA BARNE IZENEN KONTRATUA ORDAINDU AHAL IZATEKO
2004	2019	28/11/2019	PERTSONALA	AZAROKO NOMINAREN GASTUAREN ONARPENA
2005	2019	28/11/2019	IDAZKARITZA	ARTXIPIAGA PLAZAKO GARAJEEN GASTUAK ORDAINTZEA.
2006	2019	28/11/2019	IDAZKARITZA	2019KO ASFALTO KANPAINAREN ESLEIPENARI HASIERA EMATEA
2007	2019	29/11/2019	HIRIGINTZA	ONTZAT EMANATEA INVIZA S.AK LEGEZTATZEKO AURKEZTUTAKO AGIRIAK
2008	2019	29/11/2019	PERTSONALA	E.E.C. (HIRIGINTZAKO A.O.T.)
2009	2019	29/11/2019	OBRAK	CONSTRUCCIONES FRANCISCO AIERBE, S.L ENPRESARI KONDEKO ALDAPAKO ETA BERAZUBIKO LOKALEN OBRA ABALA ITZULTZEA.
2010	2019	29/11/2019	KONTUHARTZAILLETZA	56. FAKTURA-ZERRENDAKO FAKTURA GUZTIEN ETA BAKOITZAREN GASTUA ETA ORDAIN DITZATELA AGINTZEA:
2011	2019	29/11/2019	OBRAK	ALONDEGI PLAZAKO KARPA HORNIDURAREN FAKTURA ORDAINTZEA ONARTZEA
2012	2019	29/11/2019	KULTURA	INAEM-EKO DIRULAGUNTZA TITIRIJAIRAKO CIT-I ORDAINTZEA
2013	2019	29/11/2019	OBRAK	ZEZEN PLAZA ZAHARBERRITZEKO OBREN 3.FASEKO BIGARREN ZERTIFIKAZIOA ONARTZEA.
2014	2019	29/11/2019	PERTSONALA	2019KO OPORRAK
2015	2019	29/11/2019	UDALTZAINGOA	PASABIDE BAT ONARTZEA
2016	2019	29/11/2019	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 28KO FATXADA ETA TEILATUA KONPONTZEKO OBRA AMAIERAKO AGIRI OSAGARRIAK ETA BALDINTZAK BETETZEKO ERREKERIMENDUA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2017	2019	02/12/2019	HIRIGINTZA	BERDURA PLAZA 1 ERAIKINEKO ARKUPEKO SABAITIK ERORTZEKO ARRISKUAN DAUDEN ZATIAK KENTZEKO EGIKARITZE AGINDUA



TOLOSAKO  
UDALA

2018	2019	02/12/2019	HIRIGINTZA	FORU ALDUNDIAK EMANDAKO DIRULAGUNTZARI UKO EGITEA
2019	2019	02/12/2019	EUSKARA	GALTZAUNDIRI ZERKAUSIAN EUSKARAREN EGUNA OSPATZEKO BAIMENA
2020	2019	02/12/2019	IDAZKARITZA	2019ERRE0028 ESPEDIENTEAREN HASIERA
2021	2019	02/12/2019	IDAZKARITZA	TOLOSAKO UDALEKO KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRA ERATZEA, TOLOSAKO UDALEKO ALKATE-LEHENDAKARIAK SUSTATUKO DITUEN KONTRATAZIO-JARDUNBIDE GUZTIETAN LAGUNTZA EMATEKO ORGANO GISA.
2022	2019	02/12/2019	HIRIGINTZA	ZUMALAKARREGI 5 ERAIKINEAN OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEKO OBREI DIRU LAGUNTZA EMATEA
2023	2019	02/12/2019	HIRIGINTZA	SAN BLAS AUZOAN DAGOEN BORDAREN ERABILERAREN EGOERA URBANISTIKOA
2024	2019	02/12/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	ABENDUKO ALOKAIRUAK GLL KONTURA
2025	2019	03/12/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	GIZARTE ZERBITZUETAKO GIDA DIBERTSITATERA EGOKITZEKO, IRAKURKETA ERRAZERA ETA HIZKUNTZA DESBERDINETARA EGOKITZEA ETA ARGITARATZEA ONARTU.
2026	2019	03/12/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	Y.S.B.RI LARRIALDIKO UDAL DIRULAGUNTZA EMATEA ABENDUAN
2027	2019	03/12/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	A.P.L.RI LARRIALDIKO UDAL DIRULAGUNTZA EMATEA ABENDUAN
2028	2019	03/12/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	E.M.M.RI LARRIALDIKO UDAL DIRULAGUNTZA EMATEA
2029	2019	03/12/2019	IDAZKARITZA	ALHONDIGAKO GARAJE BATEN ESKUALDATZEA. A.M.S.B. ARRAMELE SIGLO XXI.
2030	2019	04/12/2019	FESTAK	2019KO ABENDUAREN 4TIK 2020KO URTARRILAREN 12RA TRIANGULOA PLAZAN UMEENTZAKO KARRUSELA INSTALATZEKO BAIMENA EMATEA.

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2031	2019	04/12/2019	ENPLEGUA	J.M.M JAUNAK EGINDAKO ESKAERA COWORKING-EN BAJA EMATEKO
2032	2019	04/12/2019	IDAZKARITZA	ALHONDIGAKO GARAJEA ESKUALDATZEA. ARRAMELE SXXI. I.S.Q.



TOLOSAKO  
UDALA

2033	2019	04/12/2019	IDAZKARITZA	ALHONDIGAKO GARAJEA ESKUALDATZEA. ARRAMELE SXXI. O.L.Z.-J.G.D.
2034	2019	04/12/2019	IDAZKARITZA	2019IUDK0009 KALTEAK ERREKLAMATZEAREN HASIERA
2035	2019	04/12/2019	IDAZKARITZA	TOLOSAKO CEPA TOLOSALDEA HHI ZENTROAN LEHIOEN HORNIDURA ETA INSTALAZIOA
2036	2019	04/12/2019	IDAZKARITZA	RONDILLA LUZAPENAKO GARAJE BAT ESKUALDATZEA. O.L.L.-
2037	2019	04/12/2019	IDAZKARITZA	UZZURRE 9-6B ETXEBIZITZA TASATUAREN SALMENTARAKO GEHIENEN PREZIOA JAKINARAZTEA
2038	2019	04/12/2019	IDAZKARITZA	UZZURRE 21-4C ETXEBIZITZA TASATUAREN SALMENTARAKO GEHIENEN PREZIOA JAKINARAZTEA
2039	2019	05/12/2019	INFORMATIKA	AUTOCAD LT LIZENTZIEN ALOKAIKUA
2040	2019	05/12/2019	UDALZAINGOA	ESKOLA GARRAIO BAIMENA
2041	2019	05/12/2019	HIRIGINTZA	MANKOMUNITATEARI EGIN BEHARREKO URRIKO DIRU EKARPENA
2042	2019	05/12/2019	HIRIGINTZA	TOLDOA LEGEZTATZEKO BAIMENA LASKOAIN KALEA 11
2043	2019	05/12/2019	OBRAK	HILERRI BERRIZTAPENAREN 3.FASEA GAUZATZEKO PROIEKTUAREN ONARPENA.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaituzat jo da 11:55ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**